

Lehiaren Euskal Agintaritzak industria-politikari eta lehiaren politikari buruzko foro bat antolatu du

Europako Batzordearen EU Industry Week ekimenaren barneko “Industria-politika eta lehiaren politika Euskadin, Europako Batzordearen jakinarazpenaren ondoren” jardunaldia martxoaren 24an izango da (asteazkena), Guggenheim Bilbao museoan. Bertan izango dira Arantxa Tapia, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburua, eta Javier Zarraonandia, Industria sailburuordea.

Lehiaren Euskal Agintaritzako presidente Alba Urresolak industria-politika eta lehiaren politika eratzearen garrantziaz hitz egingo du, eta Ingeteam eta Petronorren parte-hartzea izango duen eztabaida bat moderatuko du

Jardunaldiaren helburua da globalizazioak, protekzionismoak, zenbait merkaturen eraldaketak eta merkataritza-tentsioek lehiaren arloan dakartzaten erronkak lantzea

BILBO, 2021eko martxoaren 17a / Lehiaren Euskal Agintaritzak (LEA/AVC) “Industria-politika eta lehiaren politika Euskadin, Europako Batzordearen jakinarazpenaren ondoren” jardunaldia antolatuko du martxoaren 24an (asteazkena), Europako Batzordearen EU Industry Week 2021 ekimenaren barnean. Jardunaldia Guggenheim Bilbao museoko auditoriumean egingo da, eta helburu gisa izango du globalizazioak, protekzionismoak, zenbait merkaturen eraldaketak eta merkataritza-tentsioek lehiaren arloan dakartzaten erronkak lantzea.

Jardunaldian izango da, besteak beste, Arantxa Tapia, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburua. Hark, Lehiaren Euskal Agintaritzako presidente Alba Urresolarekin eta Legal Adviser-eko (Europako Batzordearen Zerbitzu Juridikoa) zuzendari nagusi Fernando Castillo de la Torrerekin batera, industria-politika eta lehiaren politika eratzearen beharraz hitz egingo du.

Industriak BPGd-aren % 20a baino gehiago hartzen duen herrialde honetan, Eusko Jaurlaritzaren helburuetako bat da etorkizuneko erronkak aintzat hartzen dituen industria-politika bat ezartzea. Erronka horiek dira, besteak beste, Green Deal edo Europako Itun Berdea, digitalizazioa eta lehiaren politikarekiko bat-egitea, hori guztia Batzordeak 2020ko martxoaren 10ean egindako jakinarazpenaren esparruan.

Bigarren saioan, berriz, hauek hitz egingo dute: Javier Zarraonandia, Eusko Jaurlaritzako Industria sailburua; José Ignacio Zudaire, Petronor SAko Erakundeekiko Harremanen eta



Lehiaren Euskal Agintaritza
Autoridad Vasca de la Competencia

PRENTSA-OHARRA

Komunikazioaren zuzendaria; eta Alex Belaustegi, Ingeteam SAko Garapen Korporatiboko zuzendaria eta gerentea. Horiek guztiek Eusko Jaurlaritzaren industria-estrategiari buruz hitz egingo dute.

Jardunaldiaren hirugarren zatian, Europako Gaietarako zuzendari Mikel Antónek eta Europako Batzordeko Lehiaren Zuzendaritza Nagusian estatuko laguntzetako espezialista gisa aritzen den Ruth Álvarez-Vinagrek estatuko laguntzen denbora-esparrua eta suspertze- eta erresilientzia-mekanismoa izango dituzte aztergai. Jardunaldiari amaiera emateko, Enara Venturirik hitz egingo du, Lehiaren Euskal Agintaritzaren Kontseiluko kideak.

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruz

Lehiaren Euskal Agintaritza, administrazio izaera duena erakunde autonomoa da, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Sailari atxikia, eta autonomia organikoa eta funtzionala du bere eginkizunak betetzeko Euskal Autonomia Erkidegoan. Bere helburu orokorra merkatuko lehia askearen eta gardentasunaren baldintzak sustatzea, bermatzea eta hobetzea da, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten ari diren jarduketa ekonomikoei dagokienez.